

UTEGIAK 2018 LIBURUTEGIAK 20  
TEGIAK 2018 LIBURUTEGIA 201  
EGIAK 2018 LIBURUTEGIAK 018  
GIAK 2018 LI TEGIAK 218 L  
IAK 2018 LIB EGI AK 208 L I  
AK 2018 LIBU GIAK 201 LIB  
K 2018 LIBURUTEGIAK 2018 IBU  
2018 **LIBURUTEGIAK 2018** LBUR  
018 LIBURUTEGIAK 2018 LIURU  
18 LIBURUTEGIAK 2018 LIBRUT  
8 LIBURUTEGIAK 2018 LIBUUTE  
LIBURUTEGIAK 2018 LIBURTEG  
IBURUTEGIAK 2018 LIBURUEGI  
BURUTEGIAK 2018 LIBURUTGIA  
URUTEGIAK 2018 LIBURUTEIAK



# Sarrera

Adiskide eta lankideok:

Historialariorioi ez zaigu gustatzen “une Historikoa” esamoldea une guztiak historikoak direlako eta maiz, gertaera baten garrantzia azpimarratzeko erabili arren, handik gutxira gertaera bera ere ahaztua dugulako. Ez dut esango, ondorioz, Euskadiko liburutegiek une historikoa bizi izan dutenik 2018. urtean, baina aurrerago garai hau aztertzen denean, urrats garrantzitsuak eman zirela azpimarratuko dute analistek. Pertsona eta erakunde askoren zereginaren fruitu da lortu dena: liburuzainena lehenik eta behin, zuok gabe ezinezkoa baita liburutegiak irekita edukitzea; Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailaren Liburutegi Zerbitzuarena ondoren, beraiek egiten dutelako posible sarea martxan izatea; herri-erakundeak hirugarrenik, azpiegitura teknikoa eta ekonomikoa ahalbideratzen dutelako eta guztien gainetik, irakurleak, beraientzat eta beraiekin lan egiten dugulako. Sareak elkarlana galdatzen du eta saiatuko gara hura indartzen hurrengo hilabeteetan.

Bi dira iazko jardunean nabarmendu beharreko aurrepausoak. Lehenik, Arabako Foru Aldundiaren Ignacio Aldecoa Kultura Etxea eta Euskara, Kultura eta Kirol Sailari atxikitako zerbitzu eta museoetako liburutegiak Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarean sartu dira. Urrats hori eman duen lehen aldundia da eta sareak udal-liburutegien esparrua gainditzeko bidea markatu digu. Bigarren gertaera nabarmena [www.liburubila.euskadi.eus](http://www.liburubila.euskadi.eus) bilatzailea abiatzea izan da. 2017. urteko aldizkarian iragarri genuen eta erralitatea da dagoeneko. Etengabe berrituz pixkanaka hobetzen joango gara. Ez da berrikuntza, baina eLiburutegiak izan duen sendotzea ere azpimarratuko nahiko nuke sarrera honetan. Liburutegien

arteko mailegua ere indartzen ari da etengabe eta Santurtziko, Bilboko eta Donostiako liburutegiak bete-betean sartu direnez sisteman, are emankorragoa izango dela dirudi.

Aurreko aldizkarian iragarri genuen beste nobedade bat ez da gauzatu oraindik, arazo tekniko eta administratiboen ondorioz: “Euskadiko Liburutegi Digital Nazionala”. Ez daukagu zokoratuta eta dena ondo badoa 2019 amaierarako martxan egongo da. Euskadiko Liburutegiak bi adar desberdin izango ditu. Alde batetik, XX. mendeko 3.000 euskal libururen izenburuen antologia edo bilduma eta bestetik, are garrantzitsuagoa izango dena, software berezi bat ari gara prestatzen euskal produkzio bibliografikoa era errazean bildu eta antolatu ahal izateko.

Ikusten duzuenez, Euskadiko liburutegi sistemak digitalizazioaren eta irisgarritasunaren bidean indartsu darrai. Pauso horiek, dena den, antzuak lirateke oinarririk garrantzitsuena alde batera utziko bagenu: liburuekiko eta irakurketarekiko maitasuna. Sentimendu horiek suspertzeko gai garen bitartean aurrera egingo dugu.

Laster arte.



**Mikel Aizpuru Murua**  
*Kultura Ondarearen zuzendaria*




ESTATISTIKAK2018






# Hileroko maileguen bilakaera


Mailegu digitalaren zerbitzua 2014ko amaieran hasi zen martxan. Nahiz eta urtero hilabetez hilabete portaera-jarraitibideak antzekoak izan, maileguk gora egin ohi dute prentsaurrekoak edo publizitate kanpainak daudenean. Eta horrekin batera, 2015eko uztailetik aurrera, Donostia, Bilbo eta Santurtzi zerbitzua eskaintzen hasi zirenean ere.




2018an maileguen kopurua %25tik gora hazi da 2017arekiko.



# 2018 Erabiltzaile berriak



# Erabiltzaile berrien bilakaera





# Maileguak hilabetez hilabete 2018




Liburuaren Nazioarteko Azokako (Liber) azken edizioan egin ziren Jardunaldi Profesioaletan liburu digitalen maileguaren joera aztertu zen. Pixkanakako hazkundea zehaztu zen, bai liburutegi publikoetan bai unibertsitatean ere.

Adituen ustetan mailegu plataformak, oraindik ere, ez dira oso ezagunak erabiltzaileentzat. Francisca Pulgarrek honakoa aipatu zuen: *"Garrantzitsua da liburuzainei eta erabiltzaileei laguntza eskaintzea bizitzen ari garen eraldatze prozesu honetan. Ez dugu ahaztu behar liburu digitala eta eduki digitalak geratzeko etorri direla eta egoera berri horretara egokitu behar gara".*



# Maileguak 1000 biztanleko




Biztanle kopurua eta egindako maileguak alderatzerakoan, proportzionalki eLiburutegiko erabiltzaile gehiago dago herri txikietan.

# Maileguak 1000 biztanleko (II)

 x 1.000  
 5.000 biztanle baino gutxiagoko udalerrriak


 x 1.000  
 x 1.000  
 5.000 eta 10.000 biztanle tarteko udalerrriak




5000 biztanle baino gutxiago duten herrien erabiltzaileek proportzionalki mailegu digitalerako ohitura gehiago dute.




# Maileguak 1000 biztanleko (III)



20.000 biztanletik goragoko udalerrien artean, proportzionalki, Getxo da mailegurik gehien egiten duena. Bere atzetik, Arrasate eta Durango agertzen dira.




# Maileguak liburutegiko



Biztanleria handiagoa duten udalerrietan mailegu gehiago egiten den arren, zenbait herritan ez da ematen harreman proportzional hori.

# Mailegatuenak



19  
kamera  
Jon Arretxe

217




Ezekiel  
Jasone Osoro

187



Patria  
Fernando Aramburu

177



Las hijas  
del capitán  
María Dueñas

140



Biotz  
handiegia  
Eider Rodríguez

139



Los pacientes  
del doctor  
García  
Almudena Grandes

126



Elkarrekin  
esnatzeko  
ordua  
Kirmen Uribe

107



Ezekiel  
noraezen  
Jasone Osoro

104



Cuando sale  
la reclusa  
Fred Vargas

91



Larunbatean  
Bukowskin  
John Andueza

84



Las lágrimas  
de Shiva  
César Mallorquí

81




Eskularru  
beltzak  
Jasone Osoro

70



# Mailegatuena euskaraz



19  
kamera  
Jon Arretxe

217



Ezekiel  
Jasone Osoro

187



Biotz  
handiegia  
Eider Rodriguez

139



Elkarrekin  
esnatzeko  
ordua  
Kirren Uribe  
107



Ezekiel  
noraezen  
Jasone Osoro

104



Larunbatean  
Bukowskin  
John Andueza

84



Eskularru  
beltzak  
Jasone Osoro

70



Uretara!  
Txani Rodríguez  
Nacho Fernández

63



Jenisjoplin  
Uxue Alberdi

45



612  
€uro  
Jon Arretxe

42



Obabakoak  
Bernardo Atxaga

42




100  
metro  
Ramón Saizarbitoria

32




# Maileguak 1.000 biztanleko Erkidegoka




# Maileguak Autonomia Erkidegoka (1.000 biztanleko)



# Erkidegoka eskaintzen diren izenburuak



# Lizentzia kopurua







LIBURUTEGIAK

# Abusuko mikroliburutegia (Arrigorriaga)

Abusuko Mikrobiblioteka literatura sorkuntzarako gune fisiko eta birtuala da. Mikrokontakizunen bitartez zein bestelako jardueren bidez ahalik eta pertsona gehien inplikatu nahi ditugu sorkuntzan, uste baitugu idazmena irakur zaletasuna sustatzeko modu bat dela.

Espazio fisikoa gune nabarmena da liburutegian, kartoizko altzariekin eta mikrokontakizunen liburuentzako kartoizko apalategiekin. Hausnarketa eta sormena ahalbidetuko duen txoko erakargarria egin nahi izan dugu. Espazio birtualari dagokionez blog bat mantentzen dugu liburutegian sortutako lanak batu eta ezagutzera emateko hala nola beste mikrokontakizun batzuen aukeraketa egiteko: <https://mikrobiblioteka.wordpress.com/>

Gune berri honetan sortutako proposamen batzuk liburutegian burutzen dira eta beste batzuk auzoko eragile desberdinekin elkarlanean eginten dira:

## Mikrokontakizun tailerra

Aurten hirugarren edizioa martxan dago. Partaide batzuk iazkoak dira eta beste batzuk berriak. Ana Martínez Blanco-k ematen du ordu eta erdiko zortzi saiotan bananduta, saioen tartean egin behar batzuekin. Ikasturte amaieran partaide bakoitzak mikropari bat prestatzen du ikaskideekin trukatzeko.

guztioak daukagulako zeozer irakasteko eta zeozer ikasteko. Kasu honetan, gainera, harremana artearen inguruan izan da, non sentiberatasuna ezinbestekoa den. 2019an lan guztiak liburu batean argitaratuko dira izenburu berarekin.



## Konta ezazu zure bizitza sei hitzetan

Egitasmo honek hausnarketa, laburbiltzeko gaitasuna eta sormena eskatzen du, horregatik gonbidatu genuen 2018an Abusuko auzokide guztiak mikrobiografiak idaztera Abusuko Kultur Asterako. Bostehun inguru jaso genituen erakusketa batean biltzeko.

## Mikrokontakizunak martxan

Ikasturte honetan beste jarduera bat jarri dugu abian Abusu auzoko hainbat dendariekin: euren erakuslehoian dendarekin lotutako mikrokontakizun bat idatziko dute tailerreko partaideek. Ekimena Abusuko Kultur Astearen burutuko da, aprobeztatuz ehunka haur eta gazte kaleetan zehar ibiliko direla Liburu Azokara bidean.



"Barneko joan etorriak" erakusketa.

## Barneko joan-etorriak

Barneko joan-etorriak. Hauxe da Zubietxe elkartearen TAZ arte tailerrarekin batera egindako erakusketaren izenburua. Joan den ikasturtean bi tailerren artean prestatu genuen ondorengo lana: partaide bakoitzak beste tailerrean egindako lan baten interpretazioa egingo zuen eta alderantziz. Gure ustez horrelako elkarlanek bi tailerrek ezagutarazteko eta indartzeko balio dute hala nola inguru eta bizimodu desberdinetako pertsonak batzeko; beste urrats bat auzoko elkarbizitzaren alde eta basterketa arriskuan dauden pertsonen integrazioaren alde.

Ekimen honen emaitza hogeitabat mikrokontakizun izan dira beste hainbeste artelanekin lotuta: pintura, eskultura edo collage. Guztiekin azaroan erakusketa bat egin genuen Zentro Soziokulturalean. Liburutegian beti egiten dugu kolektibo desberdinen arteko harremanen alde,

Abusuko Mikrobiblioteka Guía de Actividades de Animación a la Lectura en las Bibliotecas liburuxkarako aukeratu dute, María Moliner Irakurketa Sustatzeko Kanpainaren barruan. Gidak liburutegietan egindako 150 jarduera berri eta originalak batzen ditu, euren diseinua eta planifikazioagatik nabarmentzen direnak.

<https://bit.ly/2lpnZGV>

Gotzone Butron Kamiruaga  
Abusuko Udal bibliotekako arduraduna

# Eltziegoko liburutegia

## Aro digitalean, familiaren eta bertakoen historiari lotutako interesaren adibide bat da

**Liburutegi baten eragilea bere komunitatea da. Komunitatea ez da parametro geografiko bat soilik, irekiagoa da: unibertsala da. Liburutegiak materialak eskuratzeko aukera ugari eskaintzen ditu; erabiltzaileei materialak eskuratzeko aukera desberdinak eta ikertzeko metodoak eskaintzeko moduko zerbitzu berriak ditu.**

Landa-inguruko liburutegietan metodo tradizionalak erabili izan dira beti, bildumak ezagutzera emateko edo erabiltzaileak trebatzeko zuzeneko ikastaroak emateko. Gaur egun, metodo horietarako denbora asko behar da, dirua baino gehiago, eta hartzaile gutxiengana heltzen dira.

Hartzaileak, erabiltzaileak, komunitateak ondo pasatu behar dute trebatzen, eta trebatu behar dute ondo pasatzen. Liburutegiak garrantzi handia du horretan. Aro digitalean eskura dauden baliabideak eskaini behar ditu, herritarrentzako ahalik eta modu errazenean eta argienean.

### Helburuak

- Udal liburutegian biztanleria historikoaren gaineko fitxategi digital bat jartzea, askotariko kontsultak egin ahal izateko (genealogia, ahaidetasunak, emigrazioa, estatistikak).
- Udalerriko artxibo historikoa osatzea; liburutegitik kanpora egindako kontsultei esker (liburutegia, udalerrria) datu-interrelazioa sortzen da eta, horren bidez, kontsulta egin duen pertsona eta funts-igorlea aberastu egiten dira.
- Liburutegietan teknologia berriak erabili daitezzen laguntzea; horretarako, oinarri digitala eskaini ahal zaie biztanleei, beren ezagutza eta kultura areagotzeko.
- Afektibitate eta belaunaldi bitxikeriez betetako tresna oso berezia eskaintzea; oso personalizatuak irakurlearekin edo kontsulta egin duen pertsonarekin.

### Emaitzak eta ondorioak

Dokumentu honetan udal liburutegiak eskaintzen duen zerbitzua azaltzen da, honela: "Eltziego udalerriko biztanleria historikoan kontsultak egiteko datu-basea".

Datu-base hori da gehien kontsultatzen dena Eltziegoko webgunean ([www.elciego.es](http://www.elciego.es)). Estatistiken erregistroetan jasota dauden kontsulten kopuruak argi erakusten du ez dela alperreko ahaleginik egin, eta, hasieran azaldu bezala, liburutegi publikoaren eragilea komunitatea bera dela. Beraz, liburutegia ondare orokorra da.


Azken batean, liburutegiaren erabiltzaileekin eta erabiltzaile ez direnekin loturak ezarri behar dira; horixe da berez liburutegi publiko batek duen helburua. Liburutegi publikoak batez ere funts publikoaren bidez finantzatzen dira. Ez daude merkatuaren presioen menpe, eta merkataritzari lotuta ez dauden ekintzak gauza ditzakete, adibidez: modu lehiakorrean egiten ez diren doako zerbitzuak eman, sare batean lankidetzan aritu, edo borondatezko langileak eduki.

Internetek ematen dituen aukeretan oinarritutako zerbitzu berriak ematean, liburutegi publikoek beren betiko balioei eta funtsezko ideiei eutsi ahal izango diete une horretan dauden informazioaren eta komunikazioen teknologiak erabiliz.



### Materialak eta iturriak

Parrokia-artxiboa da denboran zehar gehien erabili dena, eta erregistro onena duena. Digitalizazioa oso beharrezkoa zen, liburuak artxiboan kontserbatu ahal izateko, erabiltzaileek eguneko edozein momentutan eskuratzeko materiala, eta edozein tokitatik (Internet) eskuratzeko material horiek.





## “Landan barneratzeko” zerbitzua. “Oinez” proiektua

**Arabako Gurutze Gorriak kudeatzen du proiektu hori, eta Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak finantzatzen du. Eltziegoko Udal Liburutegi Publikoan ematen da.**

Ekintza guztiak Arabako Foru Aldundiaren landan barneratzeko zerbitzua izenekoan sartzen dira. Are gehiago, Eltziegoko liburutegian taldeko ekintzak ere egiten dira, gizartean zaugarritasun egoeran dauden 18 eta 65 urte arteko pertsoneri zuzenduta, gizarte-langileak horrela diagnostikatu edo deribatu ostean. 2017ko urrian abiarazi zen proiektua, eta gaur egun 6 pertsonak parte hartzen dute: 3 emakumek eta 3 gizonak.

Helburua gizarteratzea eta gizarte-partaidetza bultzatzea da.

Honako hauek dira ekintzak:



### Gizarte-abileziak eta oinarrizko gaitasunak

Helburua da oinarrizko abileziak eta gaitasunak hartzea, bizi diren inguru horretan behar bezala moldatu ahal izateko eta eguneroko bizimoduko jardueretan autonomia eduki ahal izateko.



### Teknologia berrietara hurbiltzea

Partaideei teknologia berriak (IKTak) erabiltzen ikasteko oinarrizko ezagutzak eman nahi zaizkie, eten digitala murrizteko.



José Ángel Gómez Santamaría  
Eltziegoko Udal Liburutegi Publikoko zuzendaria (Araba)

# Zugandik hurbil

## Liburutegia herritarrengana eta herritarrek liburutegira hurbilduz

**40 urtetik gora ditu Elgetako Liburutegiak. 1975. urtean jaio zen, herritik herriarentzat, bolondres taldetxo baten lanari esker. 1987. urtean kultur-etxearen irekitzearekin hartu zuen egun duen kokalekua. Orduz geroztik garaiak asko aldatu dira.**

### Helburua herritarrek

Liburutegiko helburuak eta zerbitzuak bere kontzeptua eta funtzioei estuki lotuta eraldatuz joan dira denboran zehar, zerbitzatu beharreko errealitatera egokituz. Azken urteetan, teknologia berriek ahalbidetu duten informazioaren gizarreak ezarritako erronketara moldatu behar izan dira liburutegiak.

Beraz, gaur egunean dokumentuen kontserbazioaren ideiatik askoz haratago, erabiltzaileen beharretara egokituz, liburutegi errealitate berri bat eraikiz doa, zerbitzu karta zabalduz doan hein berean.


Biblioteka bakoitza bere komunitateko errealitate eta beharretara egokitu behar da. Aldaera desberdinak kontuan hartuta eta betiere erabiltzaileen beharrei errantzunez finkatu behar ditu bere helburu eta zerbitzuak. Eraikin, bilduma, lan-talde, etab. tamainak baino gehiago, behar horiei egoki erantzuten asmatzeko egiten du liburutegi bat handi.

Elgetako liburutegian ere azken urteetan aldaketa nabarmenak bultzatu ditugu oinarritzat "Zugandik hurbil" leloak adierazten duen guztia barneratuta. Horren isla inoiz baino nabarmenagoa da liburutegiren egunerokoan: herritik, herrikoa, herritarrentzat eta herritarrekin.

Eraldaketa esanguratsu bat liburutegiaren berrantolaketa izan zen. Alde batetik, irigarritasuna errazteko eta eremuari zabaltasuna eta erakargarritasuna gehitzeko. Eta bestetik, eremuak bereizteko, eta batez ere, haurren eremuari xarma berezi bat gehitzeko. Ildo honetan lanean, zerbitzua osatu asmoz, duela urtebete inguru auzolanean liburutegiaren ondoko gela txikietako bat atondu zen Bibliotxiki gunea, batik-bat 0-4 urte tarteko txikitxoentzako gunea, sortzeko.

Bultzatutako aldaketa horien fruitu gure liburutegia gaur gaurkoa da; teknologia berriek eskaintzen dituzten baliabideak aprobetxatuz liburutegia informazioaren

gizartera egokitu da. Bide horretan, komunikazio kanal berriak gureganatu ditugu (WhatsApp eta Telegram esaterako), sarean gure presentzia hedatu dugu blog-webaren nahiz sare sozialen (twitter, facebook, instagram, pinterest) bidez eta zerbitzu digitalak ere badoaz bere lekua hartuz (eLiburutegi eta OPACa,



adibidez). Gainera, mundu anitz honek eskaintzen dituen baliabideak gureganatu eta erabiltzaileen zerbitzura jartzeko bideak ez du etenik. Beti gaude ikasteko prest! Aldi berean, gure liburutegia gune bizia, irekia, eraikitzailea eta interaktiboa da. Horrela izateko beharrezko tresnak eta bideak gauzatzen saiatzen gara, herriko talde naiz herritarrekin konplizitatea bilatuz, liburutegia herrira ateraz eta herritarrek liburutegira erakarriz.

Zentzu horretan aipagarri izan daitezkeen eta herrian presentzia nabarmena duten hainbat dinamika bultzatzen dira liburutegitik:

### **Ipuienen ordua**

Liburutegiak bultzatuta eta boluntario taldearen gogo eta lanari esker 2014ko otsailean, herriko txikitxoei euskarazko ipuin nahiz kontakizun ez gozatzeko aukera eskaintzeko nahiarekin abian jarri genuen egitasmoa da. Egun, 3 kontaketa bereizitako (8/9 urtetik gora, 5/6 urtetik gora eta 2/3 urtetik gora) 10 saio inguru egiten ditugu ikasturtero kontalari boluntarioen eskutik, ostiral arratsaldetan.

### **Gu ere kontalari**

Herriko haurrak, txikitxoek heldu baten laguntzarekin, kontalari bihurtzen diren tartea. Ikasturtean zehar 3 saio antolatzen dira.

### **Hitzez-pitz Berbalagun**

Euskarazko testuen irakurketa oinarri duen eta mintza-praktikako kideek kide ez diren herritarrekin partekatzen dutena irakurketa kluba. Gutxi gorabehera 7 topaketa antolatzen dira ikasturtean.

### **Tailerrak**

Nabarmentzeko, haur naiz helduei zuzenduta egiten ditugun kontalaritza tailerrak eta familian parte-hartzeko artista liburuak eskulan tailerra.

### **Lehiaketak**

Adibidetzat, batetik, haurrentzako marrazki lehiaketa, non hurrengo urterako irakurpuntuetarako irudi bilakatzen diren marrazki irabazleak, eta bestetik, liburu bat opari gabon bueltan ospatzen dugun liburu gomendioen argazki lehiaketa.

### **Liburutegia plazara**

Herriko ekintzetan edota azoketan liburutegia plazara ateratzen dugu, dagokionean dagokion bildumaren berri emanez.

### **Taldeko lana**

Herri eskolarekin eta herriko bestelako talde nahiz norbanakorekin elkarlanerako bideak jorratzen ditugu. Adibideak: "Bibliobero" ekimenaren barnean herriko farmaziako arduradunarekin antisorgailuei buruzko informazio saioa edo "Yoga ipuinak" herriko yoga irakaslearekin elkarlanean antolatutako kontaketa.



Gaur egun, gizarte ereduak exijituz, bibliotekak komunitatean izan behar duen integrazioak garrantzi berezia hartu duen biblioteka publiko eredu berri baten aurrean aurkitzen garela esan daiteke. Bibliotekak presentzia eta rol aktiboa bete behar du gizartearen eguneroko bizitzan. Gainerako futzioak mailaz jaitsi gabe, gizarte garapenean eta norbanako kritikoaren izatean duen paper dinamizatzailea indartu behar du. Informazioa lepo dugun gizarte honetan ezagutzak presa eta erakuslehiko faltsuen artean ihes egin ez dezan, gertuko orientatzaile rola barneratuta, liburutegiok, informazioa banakako jakinduria nahiz herri-jakinduria bilatzeko prozesuan bitartekari eta bidelagun izan behar gara, gure komunitatea horretarako baliabideez hornituz. Eta bide horretan jarduteko prest gaude, beti herritarrengandik hurbil. Zugandik hurbil!

**Geaxi Ezpeleta Gallastegi**  
*Elgetako liburutegiko arduraduna*

# Hernaniko Liburutegia, Unibertso osoa kabitzen den plaza bat

**Horrela titulatu dugu urte honen hasieran Hernaniko liburutegiari buruz kaleratu dugun bideoa. Izenburua eslogan soila baino askoz gehiago da, edozein liburutegi publikoren muinarekin lotuta dagoen definizioa baita. Irudi, ahots eta musikaren bidez, 70 segundotan, publizitate-iragarki modura, liburutegia zer den azaltzen saiatu gara. Hona hemen ibilbidearen kontakizuna.**

## Zergatik liburutegiari buruzko bideo bat?

Eta zergatik ez?

Istoria hau Liburutegiaren web gunea berritzeko prozesuarekin hasi zen. Erabateko aldaketa egin behar genuen, besteak beste, Udalak erabiltzen zuen plataformara migratu behar genuelako.

Une erabakigarri baten aurrean geunden, dena birplanteatzeko aukera geneukan eta ondo egin behar genuen. Begien bistan jartzen zitzaigun erroka zaila bezain interesgarria zen.

Birplanteatze prozesu horretan, neketsuena zalantzarik gabe, "Ezagutu gaitzazu" eta "Gure proiektua" atalak garatzea izan zen.

Denok, jakin badakigu, zein konplikatu den hitz gutxitan definitzea liburutegiko zerbitzua zer den, edota bertan, zer egiten dugun. Gainera, era erakargarrian egin nahi badugu, eta mezua eraginkorra izatea lortu nahi badugu, erroka, amets gaizto bihur daiteke. Eta hori gertatu zitzaigun guri, ikusi genuenean bi atal horietan jarri genituen testuak eta argazkiak nahi genuen helburutik oso urrun gelditzen zirela.

Beste aukera bat bilatu behar genuen, liburutegiko irudien aurkezpen gutuna izan behar zuten atalek beharrezko indarra eta nortasuna eskuratzeko. Bideo bat egitea irtenbide egokia izan zitekeela pentsatzen hasi ginen une horretan.

## Kasualitate hutsa

Hortxe zegoen asmoa, alegia, bideoa egitea. Baina egia da, horrelako proiektuek hausnarketa prozesuan gelditzeko arriskua daukate tartean pizgarri gisa jokatzeko duen zerbait ez badago. Gure kasuan, pizgarri hori kasualitatez iritsi zen, zerbitzu enpresa pribatu batek bere lana azaltzeko egindako iragarkia gure begietara iritsi zenean.

Katalizatzaile modura bidea erakutsi zigun. Hori zen behar genuena, liburutegiko zerbitzua iragartzea beste edozein



enpresak bere produktua iragartzen duen modura. Zergatik ez?.

Publizitatez inguratutik gaude, baina arretaz begiratu bagenu, konturatuko ginatke herri liburutegiari buruzko "spot" modukorik ez dela sekulan egin. Irakurzaletasuna suspertzeko kanpaina ezberdinak hedatu dira (zorionez); baina ez liburutegiak, zerbitzu gisa, eskaintzen duen guztiari buruz. Eta nire uste apalean, beharrezkoa da, besterik ez bada gaurkotutako irudi bat zabaltzeko.

Erabakia hartuta geneukan. Web orrian, beraz, aurkezpen modura jarritako testu eta argazkiak, publizitate- iragarki batekin ordezkatu behar genituen.

Idea ere oso argi zegoen. Zerbait dinamikoa eta ezberdina egin nahi genuen. Urte osoan gauzatutako ekimenen laburpena jasotzen duen ohiko bideoaz aldentzea zen asmoa.

Helburuarekin eta mezuarekin zalantza minimorik ere ez zegoen. Liburutegiek orokorrean duten irudi ilun, triste eta zaharkitu horrekin bukatu nahi genuen.

Halaber, gertutasuna adieraztea ezinbestekoa zen, pertsona ezberdinengana iristea nahi bagenuen behintzat.

## Osagaiak bagenituen. Baina, nola sukaldatu?

Horrelako une erabakigarrietan, bizitzan bezala, norberaren errealitatea onartzeak, konplexuak gainditzeak, praktiko izateak eta aukerak profitatzeak asko laguntzen du.

Gure errealitatea gordina zen: egunerokotasunak ez zuen aukerarik ematen, horrelako sormen prozesu batean sartzeko. Ez geneukan, ez denbora, ezta nahiko giza-baliabiderik ere. Aukera ekonomikoa berriz, ezusteko bati esker iritsi zitzaigun eta profiritatu genuen. Guk geuk egitea ezinezkoa bazen, diseinu eta ikus-entzunezkoen bueltan dabilen adituen enpresa batek egingo luke. Atea jo genuen eta ezagutzen ez genuen mundu batean sartu ginen.

Hortik aurrera... bilerak, bisitaldiak, grabazio saioak, bilerak berriro. Gidoia aztertzea, zuzentzea, berridaztea, laburtzea eta laburpenaren laburpena egitea. Krisian sartzeko, izandako ideiaz damutzea, eta zailena, liburuzainok dena sailkatzeko eta ordenatzeko dugun joera, alde batera uztea.

Horrela, elkarlanean, profesional ezberdinen begiradak uztartuz, 70 segundotan, "Unibertso osoa kabitzen den plazaren" kontaketa eraiki genuen.

Dagoeneko web orrian jarrita dago (<http://liburutegia.hernani.eus/eu/lan-taldea>) eta gaur egun ez zaigu era hobea bururatzen gure proiektuaren aurkezpena egiteko.

Otsailaren hasieran sare sozialetara igo genuen eta izandako harrera eta oihartzuna harro sentitzeko modukoak izan dira. Gu indartzeko, ahalduzko eta lanerako gogoia suspertzeko balio izan du.

Felicidad Campal-ek, urtearen hasieran, "Los 10 propósitos (bibliotecarios) que podemos (y debemos) cumplir fácilmente en 2019" 1 argitaratutako artikuluan, 9. puntuan horrela zioen:

**Hacer más visible nuestro trabajo "Los bibliotecarios hacemos muchísimas cosas diariamente, pero es necesario que ese trabajo sea visible tanto para el resto de colegas de profesión como para los propios usuarios. Tenemos que salir de nuestra zona de confort y contar y difundir lo que hacemos y cómo lo hacemos."**

Gu hasi besterik ez gara egin, baina bidean jarri gara eta jarraitzeko asmoa dugu. Ahaztuko ez dugun eskarmentua, izan delako, zalantzarik gabe.

Gure esker beroenak Bira Produzioak taldeari, egindako lanarengatik. Gure hitzak, mezuak, azalpenak...hain ondo irudikatzeagatik.

Raquel Gonzalez  
Hernaniko liburutegiko arduraduna



## Hona hemen bideoaren testua:

"Hernaniko liburutegia Biteri plazan dago. Kultur etxearen 2. solairuan. Batzuek uste dute bertako sarrera muntstro batek gordetzen duela, liburuak pozoitzen ditugula eta hitz egitea debekatuta dagoela.

Fantasia hutsak!

Ainara, Eva, Pili, Ramón eta Raquel gara, liburuzainak.

Bertan zaletasun guztientzako aukerak daukagu zuretzat.

Sukaldaritza, bidaiak, nobela beltza, mota guztietako komikiak. Eta baita joku liburuak ere.

Film edota serie irensele beharrak asetzeko euren dosiak.

Eta nola ez, nahi adina informazio.

...Adi ez badaukagu, bilatu eta zauden lekura eramango dizugu. Gure boterea ez delako lau horma hauetara mugatzen: Hernani Hitzetan, Saio linbikoak, Hitz-andana...

Liburutegia unibertso osoa kabitzen den plaza delako.

Zatoz liburutegira!



# Turtziozen?: denetik

**Norbaitek galdetzen diguten zertan aritzen garen Turtziozko Kultur Etxean hori da eman ohi dudana erantzuna. Berezko kokapena eta udalerraren ezaugarri fisikoak, 500 biztanleko herri txiki eta zabala Enkarerrin, gure lana denetik sartzan den kutxa kultural handia izan dadila eragiten du...**

Turtziozkoek aspaldi frogatu zuten herri irakurzalea zela. Lehenengo liburutegia 1971an sortu zuten maisu baten bultzatuz eta bagaude gaurko eraikinean 1999tik. Lehenengo solairuan liburutegia, erakusketagunea eta informazio turistikoa daude. Bigarren pisutan ikus-entzunezko gela, KZgunea (noizean behingo tutoreak gainbegiratzen digu hilabetean behin), bilera eta ikastarorako gela eta tokiko elkarten bulegoa aurkitzen ditugu. Hiru-garren pisutan ludoteka bat prestatu berria dugu. Herriko elkargunea gara.

Hain txikia den udalerraren lokalen ugaritasuna izan ezik, Kultur Etxearen erakargarri-tasun handienetako bat bere ordutegi zabala da. Astelehenetik ostegunera hiru eta erdietatik bedera-tzietara irekitzen dugu, ostiraletan ordu erdi bat gehiago eta larunbatetan hamaiketarik ordu bat era erdietara eta lauretatik bederatzietara. Uztaila eta abuztuan egun berberak goiz eta arratsalde.

Honetaz guztiaz arduratzeko bi emakume lantzen ditugu lanaldi-erdian: Sheila Alicante eta Ana Orcasitas.

Euskadiko Irakurketa Publikoko Sareko Izatea gakoa da gure lanean, liburuzain asko eta liburutegien arteko lanari etekina ateratzen diogu egunero. Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Zerbitzuaren babesa ere ezinbestekoa da eta eskaintzen diguten doako formakuntzari esker profesionalki birziklatzen gara. Honek guztiak berezko baliabideekin lortuko ez ginatekeen ikuspena ematen digu eta laguntzen digu gu hainbeste bilakaera teknologikorekin ez atzeratzen kalitate oneko zerbitzua eskaintzen.

Turtziozen Kultur Etxea herriko beste plaza bat da. Komunitatea biltzeko topagunea eta jarduera-mota guztiak egoteko lekua. Eskolari ere ekintzak prestatzen dizkiogu baita aurten ere zahar egoitzari.

Hona hemen 2019an garatuko ditugun jarduerak Turtziozen:

## Eskolaren bisitak

Urte hauetan zehar hainbat izan dira Eskolak Kultur Etxea erabiltzeko Eskolak izan dituen erak: ikasturte oso edo hiru hilabeterako materiala eraman ikasgeletan lantzeko; ikaslegoaren bisitak hiru eta erdietatik lauretara (eskola lauretan bukatzen da) liburutegira bakoitzarekiko liburua aukeratzeko edo data berezietan (apirilko liburuaran eguna, urriko liburutegiaren eguna...) irekitze ordutegia aurreratzen diegu. Kasu hauetan bi irakurketa tailerrak prestatzen ditugu adinaren arabera: goizean 2 eta 5 urte bitartekoak ipuinen, olerkien eta liburuen bitartez irakurketaren mundura hurbiltzen ditugu modu ludikoaz. Arratsaldean, 6 eta 12 urte bitarteko ikasleek etortzen dira guk irakasleekin adoztutako gaia sakontzera partaidetza-ekimenen bidez.

## Irakurketa tailerrak

**Sentitzeko ipuinak eta txokobiblio** haurrentzako irakurketa tailerra, helduarekin lagunduz. Abesti, olerki, masaje, musika edota hitz-jokoaren bitartez umeak literaturako mundura hurbiltzea du helburu.

**Txokobiblio:** 6 eta 9 urte bitarteko umeentzat. Bakarrik etor daitezke, heldu lagunik gabe. Irakurketa eta eskulan tailerrak liburuez eta bere aukerez gozatzeko.

## Mintzodromoa

Zer egin dezakegu Turtziozen gure hizkuntzaren erabilera gehiago bultzatzeko euskara dakigunok? EUSKARALDIA ekimenak herrian sortu zuen giroa jarraituz, "elkarretaratzeak" antolatu nahi ditugu Kultur Etxean euskara herriko eguneroakoan erabili nahi duten lagunak harremanetan jartzeko.



## Helduentzako irakurketa kluba

Hainbat ahalegin ondoren, 2017ko urrian aurrera atera zen. Hamahiru lagun parte dugu, guztiak emakumeak. Adoztutako liburua etxean irakurri ondoren hilabeteko larunbat batean elkartzen gara, goizez edo arratsalde, komeni zaien arabera.

Gu geu dinamizatzaileak gara. Gidoi txiki liburuaz eta xehetasun edota interesgarriko argibidea ere prestatzen ditugu. Egun horretan iritziak partekatzen ditugu eta gainerako esperientzia irakurtzean. Ranking-a ere badaukagu.

## Haurren ludoteka

Arestian haur-ludoteka prestatu dutu hirugarren bizutan, familien eskaera betetzeko: txikientzako joko-espazio bat. Horrela ez du liburutegiaren gauzetan nahazten. Goian ere irakurketa txokoa dago.



### Bookcrossing-a

2013a hasten dugu eta, gaur, herritiko udako bookcrossing-ak nahiko ondo funtzionatzen jarrai-tzen du. 50 liburu inguru, 8 kutxatan bananduta, jartzen ditugu udalerriko saltoki eta establezimendu publikoetan. Leku horietan uztea baimentzen diguten pertsoneri, kutxak zaintzen dituztenei baita erabiltzaile guztiei ere eskerrak ematen dizkiegu.

### Herriko zahar egoitza

2018ko maiatzean harremanetan jarri ginen aztertzeko zer jarduera egin genitzakeen liburutegian haientzako bereziki edota egoitzan bertan zeintzuk egin ahal izango ginatke. Aspalditik bertako batzuk Kultur Etxeko erabiltzaileak dira eta kooperazioari esker kopurua pixka bat handitu da. Urtarrilean, lehenengo aldiz, hara joan ginen irakurketa jarduera txiki bat egitera. Nahikotxo gustatu zaienez errepikatuko dugu hilebete edo bihilabetero.



### Aldi denborazko erakusketak

2002tik kalitate handiko erakusketak ezberdi-nak jasotzen ditugu ia hileroko, doakoak (leku-aldaketa, muntaketa eta desmuntaketa sartutakoak): irakurketa suspertzekoak, grabatuak, pinturak, argazkia..., BBK fundazioaren babesarekin. Ezagunetako eta artista berrietako lanak dira. Bere laguntzarik gabe, gu bezalako herri txikiko Kultur Etxeak ez luke aurrekontirik izango ea hilabeteroko erakusketak antolatzeko.

Erakusketak hauetaz gain, tokiko elkarteek eskura daukate Kultur Etxea montaketak egiteko: Betaio elkarteak antolatutako ipuin eta marrazki lehiaketa; abuztuko Jai-zapi eta kartel lehiaketa; Gabonetako Zentroak eta Eskolak egindako lan ezberdinak (komikiak, comics, collage, ikasleek urtero egindako Belen desberdina...)



### Orrimarkak eta irakurketa gidak

Urtean zehar, kartel oparoaz gain (Kultur Etxearenak, Elkarleen batzuk edota Udalen batzuk), data bereziak ospatzeko orrimarkak eta irakurketa gida errazak egiten ditugu, berezko baliabideekin.

Udan, Aste Santu eta Gabonetan ere tailerrak egiten ditugu eta urteroko ipuinontalari hiru saio kontratatzen dugu, Eusko Jaurlaritzak diruz- lagunduta. Eta jasotako formakuntzari esker, Liburu-bila, eLiburutegia edota irakurketa elektronikoari buruzko hitzaldi txikiak ematen ditugu.

Jarduera hauetako asko aspalditik garatzen ditugu eta, gehiengoak, ez daukate gastu estrarik guk geuk egiten ditugulako. Halaber, inork behartuta jaiola dira, boluntariokigure aldetik, gu biok udalerrian irakurketa bultzatzeko asmoz eta Turtziozko Kultura sustatzeko daukate helburu.

Ana Orcasitas y Sheila Alicante  
Turtziozko liburutegia

# Sareko zifrek azken urteetako joera mantendu dute

Sarea sendotzen ari da urtetik urtera eta azken urteetan eraman duen joera positiboa mantentzen du.

Horrela, 2018. urtean, 275.156 ale eman dira alta. Aleen kopurua guztira sei milioitik gorakoa da: 6.684.491, hain zuzen ere (aurreko ekitaldian baino 600.000 gehiago).


Alta eman diren izenburuei dagokionez, iaz baino 25.000 baino gehiago izan dira; orotara, 120.574 izenburu berri gehitu dira. Horren ondorioz, Euskadiko Irakurketa Publikoko Sareak (EIPS) bere katalogoaren datu-basean 1.195.780 izenburu ditu egun.

Aurreko urtearekin alderatuta, Sareak 41.127 erabiltzaile gehiago lortu ditu. Igoera horrekin, Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarea milioi bat erabiltzailera hurbiltzen ari da: 997.382. Beraz, ia Euskadiko biztanleriaren erdiak EIPSeko erabiltzaile txartela du jada.

Era berean, OPACean, 2017an baino 100.000 bilatze gehiago burutu dira. 2.866.521 izatetik 2.968.492 izatera pasatu da bilaketan kopurua.

Maileguez ere gora egin dute: aurreko urtean baino 17.000 gehiago egin dira. Guztira, 2.623.361 mailegu izan dira Sarean egin direnak.


2018. urteko datuen azterketaren amaitzeko, azpimarratzekoa da liburutegien arteko maileguan 95.000 garraiatze gainditu direla. Zehazteko, guztira, 96.959 izan dira sarea osatzen duten liburutegien artean egin diren bidalketak. Horrenbestez, aurreko ekitaldi-ko kopurua baino 10.000 gehiago izan dira.



# Mailegatuena... (euskaraz)

## ..irakurrienak (helduak)

Jenisjoplín  
Eva García



1.091

Bihotz handiegia  
Eider Rodríguez



939

Nola heldu naiz ni onaino  
Kattalin Miner



580

Norberaren atean sartutako zazpi golen misterioa



692

Hauxe besterik ez nuen behar!  
Jeff Kinney



597

Egun zakurrak  
Jeff Kinney



570

## ...ikusienak (helduak)

Handía  
Arregi-Garaño



145

Aupa Etxebeste!  
Asier Altuna



55

80 Egunean  
Garaño-Goenaga



46

Triki, traka Tron  
Txirri, Mirri, eta...



1.680


## ...ikusienak (haurrak)

Amalur  
Pirritx, Porrotx, eta...



630

Sentitu pensatu, ekin!  
Pirritx, Porrotx, eta...



599

## ...entzunenak (helduak)

Infrasoinuak  
Berri Txarrak



73

Mikel Laboa 1934-2008  
Mikel Laboa




59

Aska maitte, aske bizi  
Gatibu



43

Tipo-tapa korrika  
Pirritx, Porrotx eta...



170

## ...entzunenak (haurrak)

Berriz uda  
Go!azen



141

Ongi etorri basakabira!  
Go!azen



117

# Mailegatuena (gaztelaniaz)

## ...irakurrienak (helduak)

Los ritos del agua  
Eva García



2.703

Todo esto te daré  
Dolores Redondo



2.646

El silencio de la ciudad blanca  
Dolores Redondo



2.594


## ...irakurrienak (haurrak)

Naruto  
Masashi Kishimoto




1621

Dragonball  
Akira Toriyama



1.546

Juega y aprende con Mickey



1.191

## ...ikusienak (helduak)

El Bar  
Álex de la Iglesia



526

El Autor  
Manuel Martín



407

El guardián Invisible  
Fernando González



401

## ...ikusienak (haurrak)

Érase una vez el cuerpo humano 02



543

Érase una vez el cuerpo humano 04



485

Érase una vez el hombre



248

## ...entzunenak (helduak)

Mismo sitio distinto lugar  
Vetusta Morla



41

The platinum Collection  
Queen



40


Violética  
Nacho Vegas



35

## ...entzunenak (haurrak)

Alvin y las Ardillas



14

Babies go Abba



13

Grandes éxitos de Bob Esponja



13

# Bi hitzetan

## Gai-sarrera elebidunen fitxategia

2019. urtean Liburutegi Zerbitzuak aurrera eramango duen egitasmoetako bat AUBI fitxategian dauden autoritateen zatitzea izango da. Egun, autoritateen datu-baseak araututako 120.000 termino baino gehiago ditu eta arautu gabeko ia 90.000. Azken horiek, Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarean (EIPS) integratu diren katalogoen migrazio ezberdinen ondorio dira. Zaitze egitasmoaren ondorioz, EIPSeko AUTO katalogoaren datu-basean dauden gai-sarreraren (T150) erregistroen zatiketa gertatuko da. Aipatu terminoak bi hizkuntzatan (euskaraz eta gaztelaniaz) mantenduko dira eta aldaketak autoritateak dituzten erregistro bibliografikoetan ere islatuko dira. Baratz enpresarekin egitasmoaren xedea erraztuko duten prozesu automatikoak lantzen ari garen arren, Liburutegi Zerbitzutik bideratzen ari den berri-kuste eta arazketa lan karga handia dago.

Egitasmoa bukatu ondoren eta zatitze horren emaitza baliozkotzat jotzen denean, Sarea osatzen duten liburutegien prestakuntza hasiko da. Izan ere, aldaketak izango dira autoritateak sortzerakoan eta erregistro bibliografikoak katalogatzerakoan.

Adibidea:

**Matemáticas-Exámenes, tests, etc.**

= *Matematika-Azterketak, testak, etab.*

**150 1 \$aMatemáticas-\$vExámenes, tests, etc.**

**750 4 \$aMatematika-\$vAzterketak, testak, etab.**

Gai-sarrera hori bitan zatikatuko da: "Matemáticas / Matematika" + "Exámenes, tests, etc. / Azterketak, testak, etab."

## Liburubila, metabilatzaile bat baino askoz gehiago

Liburubila 2018ko uztailan jarri zen abian, Euskadiko Liburutegien Irakurketa Publikoen Sareko Liburutegiek aukeratutako material guztien erregistroen informaziorako sarbidea bideratzen duen deskubritzeko tresna.

Lehenengo fasean hiru datu-base desberdin elkartu ziren: Absysnet, Liburuklik eta eLiburutegia, herritarrek bilaketa bakar baten bitartez informazio osora sarbidea izateko, dokumentuen formatua edozein zela ere – orria zein digitala-.

Metabilatzailea garatu ondoren, bigarren fasea jarri da abian. Liburubilatik, Liburutegien Sareko erabiltzaileek behin identifikatuta, euren mailegu, erretserba, liburu edo filma zerrendak, etab. kudeatu ahal izango dituzte datu-base bakoitzera jo beharrik gabe, orain arte egin den bezala.



# LIBURUTEGIAK2018



© 2019

Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Zerbitzuak  
argitaratua.

Posta elektronikoa

[liburutegi-zerbitzua@euskadi.eus](mailto:liburutegi-zerbitzua@euskadi.eus)

**LG: SS 1509-2005**